

# LEGE OINARRI HAUETAN

WONNOWN  
Women in science  
and technology awards

## 2025KO WONNOWN SARIEN OINARRIAK

CaixaBank, S.A. finantza erakundeak (IFZ: A-08663619; helbidea: Pintor Sorolla, 2-4, Valentzia; aurrerantzean “**CaixaBank**”) eta MICROSOFT IBÉRICA S.R.L. enpresak (Unipertsonala; IFK: B-78603495; helbide soziala: Paseo del Club Deportivo, 1 – Pozuelo de Alarcón, Madril; aurrerantzean “**Microsoft Ibérica**”) WONNOWN sarien 8. ediziorako deialdia egin dute. WONNOWN sariak helburutzat dute STEM arloetako (zientziak, teknologia, ingeniariak eta matematika) ikasketak egiten dituzten emakumeen bikaintasun akademiko, profesional, pertsonal eta soziala saritzea, bereziki emakumeen presentzia eskasa duten graduatan dihardutenena.

WONNOWN sariak kategoria hauek dituzte: 6 hilabetez CaixaBanken lan egiteko 15 beka, 10.000 euroko diru sari bat eta Microsoft Ibéricaren mentoring programa bat 16 irabazleentzat. Sarietarako hautagaiek emakumezko pertsona fisikoak izan behar dute, adinez nagusiak eta egoitza fiskala Espainian dutenak, eta Lege Oinarri hauetan (aurrerantzean, “Oinarriak”) adierazitako betekizunak, eskakizunak eta baldintzak bete behar dituzte. Sarien modalitatea doan parte hartzeko lehiaketarena da, eta aurrerago zehaztuta dauden datetan eta baldintzetan gauzatuko da.

Sarien bidez, erakunde deitzaileek arazo sozial garrantzitsu bat gainditzen lagundu nahi dute, eta aurrerapausoak egin nahi dituzte, proportzionalki emakumeen presentzia urria duten lan esparru garrantzitsuetan genero berdintasuna lortzeko.

### LEHENENGOA. HAUTAGAIEN BALDINTZAK

WONNOWN sarien 8. edizioan parte hartu nahi duten emakumeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- STEM gradu baten lehen 180 kredituak gaindituak izan behar dituzte, eta horien nota ofizialak eduki behar dituzte.
- Ikasten jarraitu behar dute, gradu, master, graduondoko edo doktorego batean matrikulatuta egonik.

- Gradu ikasketak Espainiako unibertsitate batean eginak izan behar dituzte, eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia Nazionalaren (ANECA) onespena izan behar dute.
- Lehiaketara aurkezteko erabiltzen duten graduak zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikako graduen zerrendan jasota egon behar du [www.wonnowawards.com/eu/graduak](http://www.wonnowawards.com/eu/graduak) orrian.

Gainera, lehiaketarako onartuta dauden graduen zerrendan ageri ez den STEM gradu batekin aurkeztu nahi duten ikasleek gradu hori zerrendan sartzeko aukera azter dezatela eska diezaieketen antolatzaileei, betiere adierazitako baldintzak betetzen baditu. Horretarako, graduaren ikasketa plana eta graduako emakumeen ehunekoa adierazita dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Gradua zerrendan sartzeko, antolatzaileen irizpideak hartuko dira kontuan, eta haiek eskaera onartu edo baztertu ahalko dute.

CaixaBanken, Microsoft Ibérican, Cuerpo 8 Servicios Periodísticos enpresan edo WONNOW sarien 8. edizioaren kudeaketan, antolaketan eta hautapen prozesuan aktiboki parte hartzen duen beste edozein enpresatan lan egiten duten profesionalak ezingo dute hautagaitzarik aurkeztu WONNOW sarien 8. edizioan, eta horien lehen mailako ahaideek ere ez.

Parte hartzeko aldiaren edo/eta sariak banatzeko egunean CaixaBankekin zorretan dauden hautagaiek ere ezingo dute parte hartu, mugaeguna gaindituta duen eta galdagarria den edozein kopuru zor dutela ere.

Hautagaiek emakumeak izan behar dute, eta, sariei dagokienez, Erregistro Zibilean sexu femeninoarekin erregistratuta dauden eta NANan edo agiri baliokidean sexu hori duten pertsonak hartuko dira emakumetzat.

WONNOW sarien 8. edizioan doan parte har daiteke.

## **BIGARRENA. HAUTAGAIEN IZEN EMATEA**

WONNOW sarien 8. edizioan parte hartzeko, beharrezkoa da eskatutako informazioa betetzea. Horretarako, [www.wonnowawards.com/eu](http://www.wonnowawards.com/eu) webguneko izena emateko formularioa erabili beharko dute parte hartzaileek. Hortik zuzenean edo CaixaBanken eta Microsoft Ibéricaren webguneetako bannerren bidez sar daitezke formulariora.

## **HIRUGARRENA. HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA**

Hautagaitzak aurkezteko epea 2025ko martxoaren 5ean hasi eta 2025eko ekainaren 30a. Erakundeak epea luzatu ahal izango du, beharrezkotzat jotzen badu.

## **LAUGARRENA. OINARRIAK ONARTZEA**

Parte hartzaileek Oinarri hauek arretaz irakurri beharko dituzte, jakinaren gainean egoteko, eta ondoren formularioko laukitxoak markatu beharko dute, oinarriok espresuki, osorik, baldintzarik gabe eta ondorio guztietarako onartzeko.

## **BOSGARRENA. INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA**

Lehiaketan izena emateko, informazio hau bete beharko dute:

1. Izena (NANan, dokumentu baliokidean edo pasaportean ageri den bezala).

2. Abizenak (NANan, dokumentu baliokidean edo pasaportearen ageri diren bezala).
3. NANaren, dokumentu baliokidearen edo pasaportearen zenbakia.
4. Sexua (NANan, dokumentu baliokidean edo pasaportearen ageri den bezala).
5. Jaioteguna eta jaioterria.
6. Egungo helbidea.
7. Posta kodea.
8. Helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.
9. Zer unibertsitatetan (bat edo gehiago) ikasten duen eta zer gradu (bat edo gehiago), master (bat edo gehiago) eta doktorego egiten ari den.
10. Hautagaitza zer saritan aurkeztu nahi duen: diruzko saria, beka edo biak.
11. STEM graduan egin eta amaitu dituen lehen 180 kredituen batez besteko nota. Irakasgaien arteko balioa bereizi gabe.
12. Curriculum vitae. Datu pertsonalak ez ezik, sarian kontuan hartzen diren merezimenduei buruzko informazioa ere jaso behar du. Hurrengo klausulan (seigarrena) aipatzen da.
13. Motibazio gutuna edo bideoa: bi modalitate hauetako baten bidez, hautagaiak bere merezimenduak azaldu beharko ditu, zer saritara (bat edo gehiago) aurkezten den kontuan hartuta. Gutunak gehienez 700 hitz izango ditu, eta bideoak gehienez 1,5 minutu iraungo du.

Hautagaia diruzko sarira, bekara edo bietara aurkezten den, informazio desberdina adierazi beharko du motibazio gutunean edo bideoan.

- Bi saritara aurkezten bada, hurrengo bi puntuetan aipatutakoa azaldu beharko du.
- Diruzko sarira bakarrik aurkezten bada, dirua zertarako erabiliko lukeen azaldu beharko du, baita egiaztatu ere, ahal duen neurrian.
- Beketara bakarrik aurkezten bada [www.wonnowawards.com/eu/bekak](http://www.wonnowawards.com/eu/bekak) orrian ageri diren proiektu edo arloetako zeinetan parte hartu nahiko lukeen aukeratu beharko du, eta proiektu edo arlo horretan edo horietan zer ekarpen egingo lukeen eta partaidetzatik zer lortu nahi duen azaldu beharko du.

Hautagaitza aurkezteko ez da beharrezkoa emandako informazioa egiaztatzen duen dokumentaziorik eranstea, baina sariketako lehen hautaketa faseak gainditzen dituzten hautagaien dokumentazio hori eta informazio gehiago eskatuko zaie, eta lehiaketatik kanpo geratuko dira, eskatutakoa garaiz eta modu egokian aurkezten ez badute.

Diruzko sariaren hautagai finalistek nahitaez aurkeztu beharko dute unibertsitateak emandako ziurtagiri bat, non adierazita dagoen egindako lehen 180 kredituen batez besteko nota. Dokumentu hori garaiz eta modu egokian aurkezten ez dutenak ez dira finalista izango.

## **SEIGARRENA. KONTUAN HARTUTAKO MEREZIMENDUAK**

Hauek izango dira hautagaien merezimenduak baloratzeko irizpideak:

## Sei hilabetez CaixaBanken lan egiteko ordaindutako 15 beketara aurkezten badira:

Ibilbide pertsonala, hezkuntzako, profesionala eta soziala. Proiektu, ikerketa, lan profesional, sari eta ikastaroetan parte hartu izana baloratuko da, eta lankidetzan aritu izana, sinposioetara joan izana, argitalpenak egin izana, hizkuntzak jakitea, eta jarduera sozial eta kulturaletan parte hartu izana, besteak beste.

Motibazio-gutun edo -bideoan arrazoiak ematea beka ordaindua lortuz gero parte hartzeko zein proiektu/arlo aukeratuko dituen eta parte hartuz zer lortzea espero duen azaltzeko.

## 10.000 euroko sarira aurkezten badira:

[www.wonnowawards.com/eu/graduak](http://www.wonnowawards.com/eu/graduak) orrian ageri den edozein gradutan egin eta amaitutako lehen 180 kredituen espediente akademikoko irakasgaien batez besteko nota edo batezbesteko haztatu gabea.

Ibilbide pertsonala, hezkuntzako, profesionala eta soziala. Proiektu, ikerketa, lan profesional, sari eta ikastaroetan parte hartu izana baloratuko da, eta lankidetzan aritu izana, sinposioetara joan izana, argitalpenak egin izana, hizkuntzak jakitea, eta jarduera sozial eta kulturaletan parte hartu izana, besteak beste.

Saria eskudirutan eskuratu nahi izanez gero, gutun edo motibazio-bideoan, ahal den neurrian, lortutako dirua zertarako erabiliko den azaldu eta egiaztatu beharko da.

## Bi sarietara aurkezten badira:

Lehiaketa honen I. eranskinean ageri den edozein gradutan egin eta amaitutako lehen 180 kredituen espediente akademikoko irakasgaien batez besteko nota edo batezbesteko haztatu gabea.

Ibilbide pertsonala, hezkuntzako, profesionala eta soziala. Proiektu, ikerketa, lan profesional, sari eta ikastaroetan parte hartu izana baloratuko da, eta lankidetzan aritu izana, sinposioetara joan izana, argitalpenak egin izana, hizkuntzak jakitea, eta jarduera sozial eta kulturaletan parte hartu izana, besteak beste.

Bi sariak lortu nahi baditu, motibazio - gutun edo - bideoan aurreko bi ataletan azaldutakoa hartuko da kontuan.

## **ZAZPIGARRENA. AZKEN FASERAKO HAUTAKETA ETA DIRUZKO SARIA JASOTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA**

Diruzko sariaren irabazlea hautatzeko, kanporatze faseak egingo dira, eta antolakuntzak fase bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen informazio edo/eta egiaztagiri gehiago eskatu ahal izango ditu. Informazio eta dokumentazio hori garaiz eta behar bezala ez aurkezteak hautagaitza baztertzea ekar dezake.

Enpresa laguntzaileak hautagaitza finalista batzuk aurkeztuko dizkio epaimahaiari, eta epaimahaiak horien artean aukeratuko du sariduna.

Antolakuntzak aurkeztutako informazioa eta merezimenduak egiaztatzen dituen edozein informazio osagarri eska diezaieke lehiakideei, batez ere finalistei, balorazio lanak egin ahal izateko behar besteko aurrerapenez. Dokumentazio hori aurkezten ez bada, aurkeztutakoa nahikoa ez bada edo inkoherentziak argitzeari uko egiten bazaio, hautagaitza baztertu egingo da. Diruzko sariaren finalistek beren hautagaitzaren defentsa egin beharko dute epaimahaiaren

aurrean, izan bideokonferentzia bidez edo presentzialki.

## **ZORTZIGARRENA. 15 BEKA SARIETARAKO AZKEN FASERAKO HAUTAKETA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA**

Diruzko sariaren kasuan bezala, 15 beken irabazleak hautatzeko kanporatze faseak egingo dira, eta antolakuntzak fase bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen informazio edo/eta egiaztatgiri gehiago eskatu ahal izango ditu. Informazio eta dokumentazio hori garaiz eta behar bezala ez aurkezteak hautagaitza baztertzea ekar dezake.

Antolakuntzak aurkeztutako informazioa eta merezimenduak egiaztatzen dituen edozein informazio osagarri eska diezaieke lehiakideei, batez ere finalistei, balorazio lanak egin ahal izateko behar besteko aurrerapenez. Dokumentazio hori aurkezten ez bada, aurkeztutakoa nahikoa ez bada edo inkoherentziak argitzeari uko egiten bazaio, hautagaitza baztertu egingo da.

Aurretiko hautaketa egingo da parte hartzen duten hautagaien artean, bosgarren klausulan adierazitako datuetan oinarrituta. Enpresa hautatzaileetako bat harremanetan jarriko da aurretiko hautaketan aukeratu dituzten hautagaiekin, prozesuan aurrera egiteko.

15 bekak banatzeko prozesuaren hurrengo faseetara igarotzen diren hautagaiei elkarrizketa pertsonala egin ahal izango die enpresa laguntzaile batek eta CaixaBankek, bideokonferentzia bidez edo presentzialki.

## **BEDERATZIGARRENA. EPAIMAHAIAREN OSAERA ETA ERABAKIAK**

Epaimahaia CaixaBankeko eta Microsoft Ibéricako zuzendariak osatuko dute, eta bere erabakien jabe izango da, eta erabateko autonomia izango du hautagai irabazleak aukeratzeko. Epaimahaiaren erabakiak gehiengoz hartuko dira. Berdinketa baldin badago, epaimahaiko buruaren botoa erabakigarria izango da. Gainera, epaimahaiak sari honen Oinarriak interpretatu eta osatuko ditu, izan ditzakeen hutsak osatuz eta sor daitezkeen zalantzak argituz.

Diruzko sarian, aurrez finalista gisa hautatutako hautagaien artean aukeratu du epaimahaiak irabazle bat, eta behin betiko finalista kopurua ere zehaztu du bere irizpidearen arabera, bosgarren klausulan adierazitako merezimenduetan oinarrituta. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta haren aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu. Oinarri hauek onartuz gero, espresuki uko egiten zaio edozein erreklamaziori, bai hautagaiak aukeratzeko prozesuari dagokionez, bai epaimahaiaren erabakiei dagokienez.

## **HAMARGARRENA. SARIAK**

Sariak honako hauek izango dira:

- Ordaindutako 15 aukera profesionalak, sei hilabetez CaixaBanken lan egiteko [www.wonnowawards.com/eu/bekak](http://www.wonnowawards.com/eu/bekak) orrian zehaztuta dauden arlo edo/eta proiektuetan.
- 10.000 €-ko sari bat, ikasketekin, prestakuntzarekin edo enpresa proiektuekin jarraitzeko edo horiek zabaltzeko (sariaren zenbateko gordina 10.000 €-koa da, eta zerga legedi aplikagarriaren mende dago).
- Diruzko sariaren irabazleak eta beka sariaren irabazleak Microsoft Ibéricak eskainitako mentoring programa batean parte hartuko dute. Parte hartzaileak eta Microsoft Ibéricak adostuko dituzte programa horren baldintzak.

Finalista izan diren hautagaiei finalista izatera iritsi direla ziurtatzeko diploma bat emango zaie.

Hautagaiek diruzko sarian, beka sarian edo bietan parte har dezakete. Bi sarietako batean izena emateak ez du esan nahi bestean ere izena eman denik.

Aipatutako bekei dagozkien lanen ezaugarriak CaixaBanken enpresa egituraren aukeretara egokituko dira. Lan horiek irabazle bakoitzari eskainiko zaizkio entitatearen punta-puntako arloetan. [www.wonnowawards.com/eu/bekak](http://www.wonnowawards.com/eu/bekak) orrian deskribatuta daude, eta arlo edo/eta proiektuak irabazle bakoitzaren interesekin ahalik eta lotura handiena izatea izango da helburua.

Erakundeak sari guztien ziurtagiriak emango ditu.

Antolatzaileek jakinaraziko diete lehiakideei saridunak direla.

## **HAMAIKAGARRENA. SARIA ONARTZEA ETA SARIARI UKO EGITEA EDO ONARTU EZIN IZATEA**

WONNOW 2025 sariak ezin izango dira aldatu edo konpentsatu saridunak hala eskatzen duelako.

Inolaz ere ezingo zaio sari bat eman sariduna ez den beste inori.

Edozein arrazoi tarteko, diruzko saria edo/eta 15 bekak jaso dituztenek sariari uko egiten badiote edo saria onartu ezin badute, hurrengo behin betiko finalistari emango zaio automatikoki, eta horrela hurrenez hurren.

Parte hartzaile batek diruzko saria nahiz 15 beketako bat jasotzeko aukera badu, eta biak lortzen baditu, bati uko egin eta bestea mantendu ahal izango du.

Behin saridunak saria jaso duela, ezin izango du negozio juridikorik egin sariarekin.

## **HAMABIGARRENA. HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA**

CaixaBankek eta Microsoft Ibéricak lehiaketari, ekitaldiei eta lotutako jardueri buruzko informazio guztiak jakinarazi ahal izango dizkiete egokitzat jotzen dituzten erakunde eta instituzio guztiei, komunikabideen edo beste edozein dibulgazio bideren bidez. Informazio horien barruan sartzen dira irabazleei eta finalistei buruzkoak, baita haien merezimenduak frogatzen dituztenak ere. Horiek guztiak osorik, laburtuta edo partzialki zabal daitezke. Oinarri hauek onartzeak esan nahi du lehiakidea ados dagoela arestian aipatutako hedapenarekin.

## **HAMAHIRUGARRENA. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA**

Formularioan adierazitako datu pertsonalak CaixaBank, S.A.ren ("CaixaBank"; IFZ: A-08663619; helbidea: Pintor Sorolla, 2-4, Valentzia) ardurapean dauden fitxategietan sartuko dira.

Eskatutako datuak beharrezkoak dira parte hartzeko eta, hala badagokio, saria banatzeko, eta helburu hauekin erabiliko dira:

- Parte hartzailea identifikatzeko.
- Sariketan parte hartzeko baldintzak baliozkotu eta egiaztatzeko, CaixaBankeko bezero izaera barne, hala badagokio.
- Hautaketa eta sari banaketa kudeatzeko, saria irabaziz gero.

Era berean, datuak CaixaBanki dagozkion arauzko betebeharrak betetzeko erabiliko dira. CaixaBankek zure datuak nola erabiltzen dituen jakiteko, informazio gehigarria duzu hemen: [www.caixabank.es/particular/general/privacidad\\_eu.html](http://www.caixabank.es/particular/general/privacidad_eu.html).

CaixaBanki dagokion legezko betebeharrak bat betetzeko, datu pertsonalak agintari eta erakunde publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie, baita sari hau kudeatzeko beharrezkoak diren zerbitzu hornitzaileei eta hirugarrenei ere.

Sari honetan parte hartzeko baimenak indarrean dauden bitartean erabiliko dira datuak; aurrekoa deusetan ukatu gabe, saria ematen denetik 30 egun igaro ondoren blokeatu egingo dira, eta gorde egingo dira (harreman horien ondoriozko ekintzak amaitu arte), legezko betebeharrak betetzeko eta erreklamazioak egin, baliatu edo defendatzeko.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, Datu Pertsonalak Babesteko Agintaritzaren aurrean baliatu ahal izango dira eskubideak eta erreklamazioak, Valentziako 209-46080 posta kutxan edo [www3.caixabank.es/apl/particulares/gdpr/index\\_eu.html](http://www3.caixabank.es/apl/particulares/gdpr/index_eu.html) orrian.

Datuen Babesaren ordezkariarekin harremanetan jartzeko: [www.caixabank.es/particular/general/dpo\\_eu.html](http://www.caixabank.es/particular/general/dpo_eu.html).

## **HAMALAU GARRENA. IZENA ERABILTZEKO BAIMENA ETA IRUDI ESKUBIDEAK EMATEA**

Saria onartzean, irabazleak eta finalistek baimena ematen diete CaixaBanki eta Microsoft Ibéricari, eta dagokion baimen dokumentuaren bidez berariaz baimentzen dituzte honako hauetarako: beren izen-abizenak erabiltzeko; argazki, filmaketa edo beste edozein ikus-entzunezko grabaketa bidez beren irudia atzeman eta finkatzeko; irudi hori edozein motatako ekitaldi, publizitate, sustapen, argitalpen edo hedapen ekintzatan erreproduzitu eta argitaratzeko, edozelakoa izanda ere (TB, Internet, sare sozialak edo beste batzuk), 2025ko WONNOW sariekin zerikusia duten xede informatibo eta sustatzaileetarako. Horretarako, bi aldeek zorrotz beteko dituzte Datu Pertsonalak Babesteko araudiak eta Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria buruzko 1/1982 Lege Organikoak ezartzen dizkieten betebeharrak.

Azkenean hautatzen diren argazki eta grabazioak inolako aldaketarik egin gabe erabili ahal izango dira, baita modu konposatu edo distortsionatuan ere, irudi finko edo bizidunean, dagokion egokitzapena eginez.

Ondorio beretarako, beren irudia ustiatzeko eskubide guztiak lagatzen eta transferitzen dizkiete CaixaBanki eta Microsoft Ibéricari, eskusiboki eta doan, munduko herrialde guztiak hartzen dituen eremu geografikorako, eta 5 urterako, horren barruan daudelarik irudiak erreproduzitzeko, eraldatzeko, banatzeko, publikoki jakinarazteko eta inoren esku uzteko eskubideak, lehen aipatutako publizitate helburuetarako.

Eskubide horiek baimendu eta lagata zera onartzen da, halaber, publizitaterako eta barne komunikatorako egokia den edozein komunikazio bideetatik irudia erreproduzitzea, digitalizatzeko eta argitaratzeko, irudiaren euskarriak erreproduzitzeko, banatzeko, publikatzeko eta euskaragarri jarritzeko; euskarri horiek edozein eratakoak izan daitezke —papera, analogikoak, digitalak edo beste edozein—, eta edozein formatutakoak —argazkia, argazki digitala, bideo filma, CDa, DVDa edo beste edozein—,.

## **HAMABOS GARRENA. ERREKLAMATZEKO EPE**

Lehiaketari buruzko erreklamazioak saridunak jakinarazi edo/eta saria esleitu eta 15 egunera

arte egin ahal izango dira, [consultas@wonnnowawards.com](mailto:consultas@wonnnowawards.com) helbidera bidalitako idazki baten bidez. Erreklamatzeko aukera horretan ez dira sartzen zortzigarren klausulan erreklamaziotik espresuki kanpo utzitako gaiei buruzko erreklamazioak.

## **HAMASEIGARRENA. APLIKATU BEHARREKO LEGEA ETA JURISDIKZIOA**

Lehiaketaren oinarriak Espainiako legeak arautzen ditu. CaixaBank, Microsoft Ibérica eta hautagaiak Espainiako lege prozesalen arabera aplikagarri zaizkien epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira.